# NORTASUN NAHASTEAK EBALUATZEKO TRESNAK EUSKARAZ. DSM 5-a.

Ozamiz, N; Ortiz A.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE MEDICINA Y ODONTOLOGÍA

# Ikerketaren Justifikazioa

- DSM (Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders) APAk (American Psychiatric Association) sortutako , gaixotasun mentalen sailkapena da.

- Kliniko, ikertzaile, medikuntza psikiatrikoen erregulazio sistemek, osasun aseguru konpainiek, konpainia farmazeutikoek eta mundu guztiko politikoek erabiltzen dute.

- Lehenengoa 1952an publikatu zen, eta ordutik beste bost errebisio egin dira, DSM 5 maiatzean publikatu da.



# Ikerketaren Justifikazioa

- DSM 5eko Nortasun eta Nortasun Nahasteen lan taldeak, nortasunaren psikopatologiaren ebaluazio eta diagnostikoan birformulatze esanguratsua gomendatu du.
- Garrantzitsua da eskala eta tresna hauek, eremu, herrialde eta kultura desberdinetan balioztatzea.
- Ikerketa honen bitartez, Euskal Herrian hartutako lagin batean tresna berri hauek balioztatu nahi ditugu.



# Sailkapen kategorialei kritikak.

- Askotan pazienteak kategoria batean baino gehiagotan sartu daitezke.
- Kategoria berdinean sartu daitezkeen pazienteen artean heterogeneotasun handia egon daiteke.
- Kategoria batzuetan denbora egonkortasun falta egoten da.
- Kategoria askoren barnean irizpideen akordio falta.
- Ez da kontuan hartzen jokabide batzuen atzean egon daitekeen motibazio osagarria,
- Tratamendurako erabilgarritasun gutxi.

# Abordai dimentsionalaren aldeko argumentuak

- Informazio malgu, espezifiko eta ulergarriagoa ematen du.
- Praktika klinikoak azterturiko sindromeen konplexutasunarekin akordioan dago.
- Neurketa dimentsionala kategorialean bilakatu daiteke, baina ez aurkakoa.
- Gaixoen ezaugarrien analisi sakonagoa egin daiteke.
- Terapeutari interbentzio esparru konkretuak errazten zaizkio.
- Komorbilitatea, jada, ez da arazoa izango ezaugarri konbinatuak izan ditzakeelako, eta ez kategoria konbinatuak.

# 2010eko DSM 5eko nortasun nahasteen birformulazioa

- Eredu dimentsional bat proposatu da.
- Kategoria gutxiago azaltzen dira.
- Nortasunaren Ezaugarri eta eremuak baloratzen dira.
- Pazientearen funtzionamendu maila ebaluatzen da.

# Ikerketaren helburuak

- DSM5eko Nortasun Nahastetarako sortutako tresna eta eskalak euskarara itzuli.

- Itzulitako tresna hauen erabilgarritasun eta ulergarritasuna frogatu bai gaixoengan eta bai ebaluatzaileengan ere.

- Tresna berrien eta DSM5eko eskalen eduki baliozkotasuna neurtu, Euskal Herrian hartutako lagin batean.

- DSM IVko nortasun nahaste diagnostikoak, DSM 5ekoekin konparatu.

# Hipotesiak

•Euskarara itzulitako DSM5eko tresnek, jatorrizko tresnen esanahi berdina daukate.

•Tresna berri hauek ulermen eta erabilgarritasun erraza izango dute ebaluatzaileentzat eta gaixoentzat.

•Tresna hauek nortasun nahasteentzako eduki baliozkotasuna izango dute.

•DSM 5eko tresnak, DSM IVkoak baino zehatzagoak dira, eta horrela, diagnostikoen solapamendua jaitsi egingo da.

# Datuen bilketa

- Santurtziko (Hospital de San Juan de Dios) hospital psikiatriko esparruan.
- AMSAren Indautxuko eta Elkanoko Eguneko Zentroetan.
- Basurtoko Hospital Psikiatrikoan.
- Gernikako Osasun Mental Zentruan.
- Bermeoko Osasun Mental Zentruan.
- Donostiako Bitarte drogomenpekotasun osasun zentrua.
- Irungo Bitarte drogomenpekotasun osasun zentruan.

# Tresnen itzulpenerako metodologia

- APAk erraztu zizkigun tresnak ingelesez zeuden eta guk euskarara itzuli genituen *"back-translation"* metodologiaren bitartez
- Parte hartu zuten:
  - Hasteko, euskal filologa baten laguntzaz, (hirueleduna: ingelesa, euskara, gazteliana), tresnak, ingelesetik euskerara itzuli genituen.
  - Ondoren, beste hirueledun (ingelesa, euskara, gazteliana) desberdin batek, euskeratik ingelesera itzuli zituen tresnak. Bigarren itzultzaile honek ez zituen jatorrizko ingelesezko tresnak ezagutzen.
  - Hurrengo urratsa, hirugarren ebaluatzaile hirueledunak (ingelesa, euskara, gazteliana), jatorrizko ingelesezko tresnak, ingelesera egindako bigarren itzulpenarekin konparatzea izan zen, esanahia berdina zela baieztatzeko.
  - Amaitzeko, klinikan aditua den norteamarikar batek jatorrizko textua berriro ingelesera itzulitakoarekin konparatu zituen, terminologian eta esanahietan akatsik ez zegoela baieztatzeko.

# Tresnen aplikaziorako metodologia

- Tresnen aplikaziorako test-retest metodologia erabili zen.
- Lehenengo elkarrizketa bat, eta beste bat hilabete bat beranduago egin ziren,
- Elkarrizketa hauek, DSM 5eko irizpide berriengan entrenaturiko profesional batek egin zituen.
- Hauek, pazienteek tratamendua jasotzen zituzten zentroetan egin ziren, eta pazienteek modu bolondresean parte hartu zuten ikerketan, eta, beraien psikiatra/psikologoengatik informatuak izan ziren.

# Datu soziodemografikoak



| ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK | | (%) |
|---|---|---|
| **Sexua** | **emakumeak** | %40,6 |
| | **gizonak** | %59,4 |
| **Adina** | **30 baino gehiago** | %71,9 |
| | **30 edo gutxiago** | %28,1 |
| **Egoera zibila** | **ezkongabea** | %71,9 |
| | **ezkondua** | %15,6 |
| | **banandua/dibortziatua** | %12,5 |
| **Seme-alabak** | **bai** | %21,9 |
| | **ez** | %78,1 |
| **Elkarbizitze mota** | **bakarrik** | %18,8 |
| | **elkarbizitzan** | %81,3 |
| **Maila sozioekonomikoa** | **altua** | %6,3 |
| | **ertaina** | %71,9 |
| | **baxua** | %21,9 |
| **Ikasketa maila** | **lehenengo hezkuntza edo oinarrizko batxillerra** | %65,6 |
| | **heziketa profesionala edo Unibertsitate ikasketak** | %34,4 |
| **Inzidentzia legalak** | **bai** | %28,1 |
| | **ez** | %71,9 |
| **Lan egoera** | **lanean** | %50,0 |
| | **langabezian** | %37,5 |
| | **ikaslea** | %12,5 |
| **Elbarritasuna** | **bai** | %31,3 |
| | **ez** | %68,8 |

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEA FACULTAD DE MEDICINA Y ODONTOLOGÍA

# Funtzionamendu maila




| | Kalterik ez/kalte txikia | Kalte moderatua | Kalte larria/muturreko kaltea |
|---|---|---|---|
| TEST | 18,5% | 37,0% | 44,5% |
| RETEST | 11,1% | 48,2% | 40,7% |

- Paziente gehienek kalte larria/ muturrekoa dute funtzionamendu mailan.

# Nortasun nahaste antisozialari egokitzapena




| | Bat ere ez/ baxua | Moderatua | Ona/oso ona |
|---|---|---|---|
| TEST | 85,2% | 3,7% | 11,1% |
| RETEST | 85,2% | 7,4% | 7,4% |

**Kappa koefizientea = 0,8**

Bi elkarrizketen arteko akordio **ona, ia perfektua.**

# Nortasun nahaste saiheskorrari egokitzapena




| | Bat ere ez/baxua | Moderatua | Ona/Oso Ona |
|---|---|---|---|
| TEST | 70,4% | 11,1% | 18,5% |
| RETEST | 59,3% | 25,9% | 14,8% |

**Kappa koefizientea =0,6**

Bi elkarrizketen arteko **akordio ona.**

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEA FACULTAD DE MEDICINA Y ODONTOLOGÍA

# Nortasun nahaste borderlineari egokitzapena




| | Bat ere ez/baxua | Moderatua | Ona/Oso Ona |
|---|---|---|---|
| TEST | 40,7% | 22,2% | 37,1% |
| RETEST | 29,6% | 22,2% | 48,2% |

**Kappa koefizientea=0,5**

Bi elkarrizketen arteko **akordio moderatua.**

# Nortasun nahaste obsesibo-konpultsiboari egokitzapena




| | Bat ere ez/baxua | Moderatua | Ona/Oso Ona |
|---|---|---|---|
| TEST | 70,3% | 29,7% | 0,0% |
| RETEST | 74,0% | 14,8% | 11,2% |

**Kappa koefizientea= 0,3**

Bi elkarrizketen arteko **akordio baxua.**

# Eremuen neurketa


















# Sintomatologia







# Ikerketaren ondorioak

- Back-translation metodologiaren bitartez, euskerara itzulitako DSM 5eko tresnek, jatorrizkoen esanahi berdina dutela baieztatu dezakegu.
- Tresna berri hauek guztiz ulergarriak eta erabilgarritasun errazekoak dira bai ebaluatzaile trebatuentzat eta bai pazienteentzat ere.
- Zeharkako neurketa tresnek eduki baliozkotasuna dutela ondorioztatu dezakegu eta bi elkarrizketen arteko sintoma aldaketak erakusteko gaitasuna daukate.

# Ikerketaren ondorioak

- Eduki baliozkotasunari dagokionez:
  - 4.1. Nortasunaren funtzionamendu eskala baliagarria da pazienteen funtzionamenduaren defizitak neurtzeko.
  - 4.2. Bost nortasun nahaste motek ez dituzte modu guztiz egokian definitzen nortasun nahasteak. Horregatik, DSM 5 eko nortasun nahasteen zirriborro berrian (2011ko ekainean sortutakoa), nortasun nahaste nartzisista eta ezaugarri espezifikodun nortasun nahastea sortu dituzte.
  - 4.3. Nortasun ezaugarrien eremuek eta fazetek argi eta garbi neurtzen dituzte nortasun ezaugarriak.
- Ezaugarri eta nortasun nahaste moten puntuazioak berdintsu mantentzen dira bi elkarrizketetan.
- DSM 5eko tresnak, DSM IVkoak baino askoz zehatzagoak direla baieztatu daiteke.

# Ondorioak

- Eztabaida asko egon dira DSM 5eko nortasun nahasteen irizpideei buruzko lehenengo formulazioa egin zenetik.
- Eztabaida hauei esker, eta mundu guztian egindako landa ikerketei eske, DSM 5eko lan taldeek, DSM 5a indartu delako iritzia daukate.
- Gure lan taldeak landa ikerketa hauetan parte hartu du, eta formulazio berri hauen indar-gune eta ahuleziak ikusi ahal izan ditugu.

# DSM 5eko 3. SAILA

- DSM 5ean ikertzeko geratu diren eremu berriak.
- Nortasun nahasteak ( 2011ko ekainean egin zen birformulazio berdina).
- Ikuspuntu dimentsional baten alde egiten da.
- Diagnostiko psikatrikoetarako garrantzitsuak diren sintomak ebaluatzeko zeharkako neurketako tresnen alde ere egiten da.



# ESKERRIK ASKO ZUEN ARRETAGATIK



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE MEDICINA Y ODONTOLOGÍA